

Sara Ezeiza Lasa

D maila • 3 saria

Kaixo! Sara Ezeiza Lasa naiz, 14 urteko Beasaindarra. La Salle ikastetxean ikasten dut eta nire zaletasunak saskibaloia eta balleta dira. Egia esan, ez nuen saria irabaztea espero, baina esan zidatenean ilusio handia egin zidan. Gehiago luzatu gabe, espero dut nire idazlana gustatzea.



KUTXAK

Kanpotik txikiak garela dirudien arren, barrutik hain gara handiak, hain gara erraldoiak..., oso zaila dela gure barrua benetan ezagutzea. Baliteke pentsatzen dugun bezain ondo ez jakitea nortzuk garen. Guztiok ditugu kutxa berezi hauek gure barruan, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago gustatzen zaizkigunak. Kutxa hauek guztiek egiten gaituzte berezi.

Kutxa honek barrearen kutxa izena du. Handia imajinatzen dut eta, gainera, toperaino beteta, segituan eztanda egitera joango balitz bezala. Kanpotik kolore gorrikoa, lotsatzen naizean nire masailek duten kolorekoa. Giltzaz ondo itxita dago, inork nire alaitasuna lapurtu ez dezan. Barrua infinitoa du, unibertsoa bezalakoa. Eta han, infinitu horretan, poltsatxo bat dago, horia eta izar formakoa, nahi ditudan desioak eskatzeko. Barruan giltza bat, geratzen zaizkidan ate guztiak irikitzeko balio duena.

Guztiok atsegin dugu gure alaitasuna besteekin partekatzea, guk irri egitea eta albokoak ohartu gabe irribarre egitea. Seguruenik hau izango da gure kutxa gogokenekoa.

Alaitasuna kutsakorra da, baina baita tristura ere. Kutxa hau nahiko handia imajinatzen dut. Kanpotik pitzadurak nabari zaizkio; batzuk handiagoak eta besteak txikiagoak. Kolore iluna du, urdin ilun-iluna; itsasoa haserretzen denean, olatu bortitzen kolorekoa. Kutxa irekitzea ez da erreza. Zergatik? Bertan inor sar ez dadin eta, horrela, haiek nitaz arduratu ez daitezen. Barruan itsasoa dago, nire malko gutiek sortu dutena. Eta ur gainean, botila bat; duela ehundaka urte norbaitek uretara bota izango lukeena bezalakoa. Botila barruan, orri zahar bat dago. Bertan, esaldi motz bat idatzita. Honela dio: "barre egin negar ez egiteko, lo egin ez pentsatzeko".

Bakarrik sentitzen garenean, triste gaudenean, norbait faltan botatzen dugunean... Sentipen horiek ezkutatzen saiatzen gara, ingurukoak ez kezkatzeko. Baina ez da erreza izaten. Askotan lotzen dugu negar egitea triste egotearekin. Hala ere, tarteka, negar egiteak lotsatu egiten gaitu. Horregatik, ezkutatzen saiatzen gara, eta malkoak kanpora atera beharrean, guretzat gordetzen ditugu.

PROSA

Halakoetan korapilo erraldoi bat sortzen da gure barruan, iluntasun beldurgarri batek biltzen duena. Askotan saiatu gara iluntasun beldurgarri hartan argi txiki bat topatzen, baina iluntasun hartan sartzeak beldurra eman digu.

Baina beldurra, zer da beldurra? Beldurrak beldurtzen gaitu, eta orduan beldurtuta alde egiten dugu. Pertsonarik ausartenak ere beldurtzen dira, nahiz eta haiek ez aitortu. Kutxa honek beldurra ematen du, beltz-beltza baita, ikatzaren antzera. Kanpoan, kolpe batzuen markak nabaritu daitezke, norbaitek mailu batez eginikoak. Kutxa hau irekitzeko erraza da, baina ez barruan zer dagoen ikusteko erraza. Ireki eta, oihu bat entzuten da; sorgin baten barre beldurgarria. Gainera, armiarma sarek bete-beteta dago; eskua sartzea ere nazka ematen du. Baina egin dut. Sartu dut. Eskua sartu eta zerbait ukitu dut, zerbait txikia eta hotza. Atera eta zintzilikario bat da. Urre kolorea du, eta gezurrezko begi bat du zintzilik. Begia kliskatu dit. Orduan, erortzen utzi dut.

Guztiok ditugu beldurrak, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Nire beldur handienetako bat, bakarrik geratzea da. Inor gabe. Beti gustatu izan zaidalako jendez ingurutatu egotea. Baina badakit zaila dela benetan maiteko zaituzten pertsonak topatzea. Esaera zahar batek dioen moduan “hobeto bakarrik, konpainia txarrean baino”.

Batzuk beldurrik ez dutela uste dute, ausartenak direla, baina uste dugun bezain azkar izutzen dira.

Pertsona ausartak. Guztiok ditugu ausartak izateko modu ezberdinak. Batzuk, zerbait gaizki egiten harrapatzen badituzte, hantxe geratzen dira, geldi eta ixilik. Beste batzuk, aldiz, gustuko ez duten zerbait aurpegira esaten ausartzen dira. Kutxa honek kolore laranja du, mandarinaz beteriko saski baten antzekoa. Irikitzeko oso gogorra dago, baina azkenean lortu dut. Esku argi bat dago, eta hartu egin dut.

Esku argia eskuan dut, eta egia esan ez dakit zertarako den. Pentsatzen jarri eta... Badakit! Triste gaudenean, korapilo erraldoi hori biltzen duen iluntasun beldurgarri hartan sartzeko da. Askotan iluntasun hartan sartzeko, laguntza behar baidugu. Begiak itxi eta iluntasuna imajinatzen saiatu naiz. Zaila da. Oso zaila. Lortzen dudak bakoitzeko, zerbait burura etortzen zait. Orain bai. Guztia ahazten saiatzen naiz. Lortu dut. Guztia ikatza bezain beltz ikusten dut, eta hor nago ni bakar-bakarrik eta burumakur. Orduan, esku-argia hartu eta piztu egin dut.

Egin behar bakar bat dut: iluntasun hartan argi txiki bat topatu. Denbora luze bat daramat, eta ez dut argirik topatzen. Guztiak beltz izaten jarraitzen du. Bat-batean, esku argia itzaldu da. Bateria amaitu zaio. Beldurtzen hasi naiz. Izerditan blai nago. Orduan, argia topatzeko esperantza galtzen hasten naiz. Ezinezkoa da. Hankak oso nekaturik ditut. Eskuak begiratu ditut, eta horitzen hasi direla ikusi dut. Goitik beheraino hori-hori nago.

Orduan, nire beldurraren kutxa martxan jarri da eta, egia esan, kikildurik nago. Ez dut piperrik ere ulertzen. Baina bat-batean guztia ulertu dut. Iluntasun hartan topatu beharreko argi txiki hura, gu geu garela; ni neu naizela. Askotan pentsarazten digutelako ez dugula ezer balio, hutsaren hurrengoak garela, baina ez da horrela. Zu zeu zarelako iluntasun hartan topatzen zabilzan argi txiki hura.